

Euskal langileon INDARRA

La fuerza de la clase trabajadora



Martxoaren 17ko Greba Orokorra euskal langileon indar erakustaldia izan zen. Duela urtebete baino gehiago, LABen ekimenez, hemengo errealtatearen arabeko gutxieneko soldata baten aldeko dinamika abiatu zen. Bi arrazoirengatik egin genuen: lehenik, estatu mailako gutxieneko soldata ez delako nahikoa elikaduraren, argindarraren eta etxebizitzaren prezioei aurre egiteko; bigarrenik, aurre egin behar diegulako soldaten balio-galerari, arrakala matxistei, arrazistei eta belaunaldi-arrakalari; aurre egiteko industria-enpleguaren suntsiketari eta patronalari (inoizko irabazirik handienak izaten ari denari).

Gutxieneko soldata propioa beharrezkoa, bidezkoa eta bideragarria da. Patronalak eta gobernuek gure ekimena mespretxatu zuten eta ados jarri ziren guk sustatutako bi bideak ixteko: negoziazio kolektiboarena eta bide politikoa. martxoaren 17ko greba orokorrari esker, bi bideak berriz irekitzea lortu dugu.

Haien ezezkoek zilegitasun, motibazio eta indar handiagoa eman digute. Izan ere, estatuan ez bezala (UGT eta CCOO edukirik gabeko elkarrizketa sozial batean desaktibatuta daude), Euskal Herrian bada sindikalismo duin bat, amore ematen ez duena, inor atzean uzten ez duena; sistema bidegabe baten arauak aldatzeko borondatea eta BOTEREA duena.

La Huelga General del 17M ha sido una demostración de fuerza de la clase trabajadora vasca. Hace más de un año, a iniciativa de LAB, se puso en marcha la campaña por un salario mínimo acorde con la realidad de Euskal Herria. Lo hicimos por dos motivos: primero, porque el SMI estatal no alcanza para hacer frente a los precios de la alimentación, de la electricidad, de la vivienda; segundo, porque hay que poner pie en pared ante la devaluación de los salarios, las brechas machistas, racistas y generacionales, la destrucción del empleo industrial y una patronal que está teniendo unos beneficios récord.

El salario mínimo propio es necesario, justo y viable. La patronal y los gobiernos despreciaron nuestra iniciativa y se pusieron de acuerdo para cerrar las dos vías que habíamos puesto en marcha, la vía de la negociación colectiva y la vía política. Pues bien: gracias al 17M hemos conseguido volver a abrir ambas vías.

Sus negativas nos han dado más legitimidad, más motivación y más fuerza. Porque, al contrario que en el Estado (donde UGT y CCOO están desactivados en un diálogo social sin contenido), en Euskal Herria hay un sindicalismo digno, que no se rinde, que no deja a nadie atrás. Un sindicalismo que tiene la voluntad y el PODER de cambiar las reglas de un sistema injusto.



Greba Orokorra datuetan

La Huelga General en datos

Lantokiak hustu eta kaleak betetzeko deiak erantzun arrakastatsua izan zuen martxoaren 17an: agerikoa izan zen eragina garraioan eta administrazio publikoan; esku-hartze sozialean; zahar egoitzetan eta eguneko zentroetan; hezkuntza publikoan zein ikastoletan; komunikabideetan; bi portuetan, Pasaikoan eta Santurtzikoan; industrian, tartean, enpresa esanguratsuekin; zerbitzu pribatuetan, bereziki herri askotan merkataritza txikian zein ostalaritzan; eta azpikontrata publiko askotan.

Sektore guztiak batu eta aktibatu ditu, euskal langileok ulertu baitugu hemen gobernaren araberako gutxieneko soldata propioa denon borroka dela. Greba orokorrak osagai asko izan ditu: klase kontzientzia eta elkartasuna; aberastasunaren banaketa justuagoa eskatzea; burujabetza gehiago aldarrikatzea; eta gerrari ez, eta bizitza duinari bai esatea. Beste behin, Euskal Herria Europan ahots propioarekin kokatu da, eta gutxi bezala erakutsi du hemen badela sindikalismo borrokalaria bat, kapitalismoari hartzak erakusteko gai.


El llamamiento a vaciar los centros de trabajo y llenar las calles tuvo una respuesta exitosa el 17 de marzo: fue evidente su impacto en el transporte y la administración pública; en la intervención social; en residencias de mayores y centros de día; en la educación pública y en las ikastolas; en los medios de comunicación; en los dos puertos, el de Pasaia y el de Santurtzi; en la industria, incluyendo empresas significativas; en los servicios privados, especialmente en el pequeño comercio y la hostelería de muchos pueblos, así como en numerosas subcontratas públicas.

Ha logrado unir y activar a todos los sectores, ya que las y los trabajadores vascos hemos entendido que un salario mínimo propio acorde a la realidad de aquí es una lucha colectiva. La huelga general ha tenido muchos componentes: conciencia de clase y solidaridad; la exigencia de una distribución más justa de la riqueza; el reclamo de mayores cotas de soberanía; hemos expresado nuestra oposición a la guerra para reivindicar vidas dignas. Una vez más, Euskal Herria se ha situado con voz propia en Europa y ha demostrado que aquí existe un sindicalismo combativo, capaz de plantar cara al capitalismo.


 1.700 enpresa batzorde baino gehiagoren atxikimendua.
Apoyo de más de 1.700 comités de empresa.

 136 greba batzorde herri eta auzoetan.
136 comités de huelga en pueblos y barrios.

 309 enpresa handitan %66tik gorako jarraipena.
Seguimiento de más del 66% en 309 grandes empresas.

 226 enpresa handitan %33 eta %66 arteko jarraipena.
Seguimiento de entre el 33 y el 66% en 226 grandes empresas.

 105.000 lagunetik gora eguerdiko 6 manifestazioetan.
Más de 105.000 manifestantes en las 6 manifestaciones del mediodía.

 55.000 lagun baino gehiago arratsaldeko 86 manifestazioetan.
Más de 55.000 manifestantes en las 86 manifestaciones de la tarde.

Greba Orokorraren LORPENAK

Logros de la Huelga General

- Langileon ahotsa entzunarazi dugu. Sindikalismoaren eraginkortasuna agerian utzi dugu. Patronala eta instituzioen aurrean indar positio hobean gauden orain.

Hemos hecho oír la voz de las y los trabajadores. Hemos demostrado la eficacia del sindicalismo. Ahora estamos en una mejor posición de fuerza frente a la patronal y las instituciones.

- Borroka sektorialeki bultzada eman diegu. Hainbat hitzarmen desblokeatzea lortu dugu. Negoziazio mahaietan patronala mugiarazi dugu. Soldaten devaluazio etengabea auzitan jarri dugu. Langile publikoen soldatak bertan negoziatzeko borrokari bultzada eman diegu. Kolokan jarri dugu absentismoaren aitzakian patronalak duen estrategia murrizketak ezartzeko.

Hemos impulsado las luchas sectoriales. Hemos logrado desbloquear varios convenios, y mover a la patronal en las mesas de negociación; hemos puesto en cuestión la continua devaluación de los salarios; hemos dado impulso a la lucha para negociar aquí los salarios del sector público; hemos puesto en entredicho la estrategia de la patronal de imponer recortes bajo el pretexto del absentismo.

- Gutxieneko soldata negoziazio kolektiboaren bidez hobetzeko bideari bultzada eman diegu. Confebaskek EAEn, eta CENek zein CCOO eta UGT sindikatuek Nafarroan, gutxieneko soldata propioa negoziatzeari betoa jarri diote, grebaren osteko negoziazio mahaiari uko eginez. Edonola ere, grebaren ondoren interlokuzio fase berri bat ireki da. Akordiorik ez badago, berriro mobilizazioak indartzeko garaia izango da.

Hemos fomentado la vía para mejorar el salario mínimo mediante la negociación colectiva. Confebask en la CAV, así como CEN y los sindicatos CCOO y UGT en Navarra, han vetado la negociación de un salario mínimo propio, renunciando a las mesas de negociación convocadas tras la huelga. En cualquier caso, tras la huelga se ha abierto una nueva fase de interlocución. Si no hay acuerdo, será el momento de volver a reforzar las movilizaciones.

- Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak estatukoa baino altuagoa litzatekeen gutxieneko soldata ezartzeko aukera gertuago dago. Eusko Legebiltzarrean EAJk eta PSEK eztabaida eragotzi zuten eta Nafarroako Parlamentuan ez zen aurrera atera hiru botorengatik, Izquierda-Ezkerra eta PSNk kontra bozkatu baitzuten. Halere, partidak irekita jarraitzen du, bai Iruñean eta Gasteizen, baita Madrilen ere; EHBildu, ERC eta BNG prest agertu dira, sindikatuok eskatu moduan, iniziatiba Kongresura eramateko.

La posibilidad de que el Gobierno Vasco y el Gobierno de Navarra establezcan un salario mínimo superior al estatal está más cerca. En el Parlamento Vasco, EAJ y PSE-EE bloquearon el debate, y en el Parlamento de Navarra no salió adelante por tres votos, ya que Izquierda-Ezkerra y PSN votaron en contra. Aun así, el pulso sigue abierto, tanto en Iruñea y Gasteiz como en Madrid; EH Bildu, ERC y BNG se han mostrado dispuestos a llevar la iniciativa al Congreso, tal como solicitamos los sindicatos.

- Burujabetza handiagoaren beharra nabarmen utzi dugu. Gutxieneko pentsioa, gutxieneko soldata edota zerbitzu publikoen dimentsioa Euskal Herrian erabakitzeak herritarren lan eta bizi baldintzak hobetuko lituzke. Bada garaia Euskal Herriaren nazio izaera aitortu eta burujabetzan jauzia emateko.

Hemos puesto de manifiesto la necesidad de una mayor soberanía. Decidir en Euskal Herria sobre la pensión mínima, el salario mínimo o la dimensión de los servicios públicos mejoraría las condiciones de trabajo y de vida de la gente trabajadora. Es hora de reconocer el carácter nacional de Euskal Herria y dar un salto en soberanía.



11. langileok Herri mugim

Munduari begiratzeko diogunean, zampaketa eta gerra ikusten ditugu nonahi: Palestina, Venezuela, Kuba, Groenlandia, Libano, Iran... Zein izango da hurrengoa? Trump eta Netanyahu bezalako faxistek eta genozidek jopuntuan dituzte munduko herriak eta langileak. Eta euren menpe jarri dira Europako agintari gehienak. Mozorrorik gabe azaltzen zaigu kapitalismoa: sistema bortitza, koloniala, heteropatriarkala da.

Langile mugimenduaren historiak, ordea, hauxe erakusten digu: antolakuntza eta borroka kolektiboaren bidez posible da munduan, Europan eta, bereziki, Euskal Herrian beste eredu bat eraikitzea. Gaur ozen esaten dugu: gerrari ez! Ez ditugu haien gerrak babestuko, eta ez dugu gerren faktura ordainduko.

Gutxi batzuen etekinak baino, denon bizitzak erdigunean jarriko dituen ereduaren alde borrokatzen ari gara. Birbanaketa politikak aldarrikatzen ditugu; enplegua, zaintza lanak eta ondasuna banatzea.

Maiatzaren Lehenean honako neurri hauek aldarrikatuko ditugu:

- **Gutxieneko soldata eta pentsio duina denontzat**, bizitzaren garestitzeari aurre egiteko. Arrakala matxista, arrazista, eta belaunaldi-arrakalarik ez.
- **Zerbitzu publikoak sendotu**, hezkuntza, osasuna edota zaintza eskubidea bermatzeko.
- **Etxebizitzaren gaineko espekulazioarekin amaitu**.
- **Industrian trantsizio ekosoziala bideratu eta enplegua defendatu**.

DEIALDIAK

ARABA

Gasteiz • Laudio • Oion

BIZKAIA

Algorta • Basauri • Bilbo • Bermeo • Durango • Igorre • Lekeitio • Portugalete

GIPUZKOA

Donostia • Eibar • Hernani • Orereta • Ordizia • Tolosa • Zumaia

LAPURDI

Baiona

NAFARROA

Altsasu • Doneztebe • Iruñea • Lizarra • Tafalla • Tuteria

ZUBEROA

Maule

Cuando miramos al mundo, vemos opresión y guerra por todas partes: Palestina, Venezuela, Cuba, Groenlandia, Libano, Irán... ¿cuál será el siguiente? Fascistas y genocidas como Donald Trump y Benjamin Netanyahu están atacando a los pueblos y a la clase trabajadora de todo el mundo. Y la mayoría de los gobernantes europeos se han puesto a su servicio. El capitalismo se nos muestra sin disfraces: es un sistema violento, colonial y heteropatriarcal.

Sin embargo, la historia del movimiento obrero nos demuestra otra cosa: mediante la organización y la lucha colectiva es posible construir otro modelo en el mundo, en Europa y, muy especialmente, en Euskal Herria. Hoy decimos con fuerza: ¡No a la guerra! No apoyaremos sus guerras ni pagaremos la factura de las guerras.

Estamos luchando por un modelo que ponga las vidas de todas las personas en el centro, antes que los beneficios de unos pocos. Defendemos políticas de redistribución; empleo, trabajo de cuidados y reparto de la riqueza.

El Primero de mayo reivindicaremos las siguientes medidas:

- **Salario mínimo y pensiones dignas** para todas las personas, para hacer frente al encarecimiento de la vida. No a las brechas machistas, racistas ni generacionales.
- **Fortalecer los servicios públicos** para garantizar el derecho a la educación, la salud y los cuidados.
- **Poner fin a la especulación con la vivienda**.
- **Impulsar la transición ecosocial en la industria y defender el empleo**.

LAB⁷
**EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA**